



TALAIAK ETA TXANTXOAK IRTETEKO PREST

Amezketan eta Abaltzisketan 09:00etatik aurrera irtengo dira Zaldunita igandean dantzara 6

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2008-01-29

VI. URTEA 1.348. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Xabino Etxeberriak irabazi du Xake Txapelketa

TOLOSA Bigarren edizioan alde gutxirekin irabazi zion Migelmari Barojari, desberdintze sisteman 3



Garraio publikoaren erabilera gomendatu dute Inauterietarako

TOLOSA Aparkaleku bereziak izango dira eta tren eta autobus zerbitzu bereziak antolatu dituzte 2

Goian Leitzako hoteetan atzo umeak izan ziren protagonista; behean Lizartzako herritarrak, herenegun. ASIER IMAZ

BATZUK AMAITZEAR BESTEAK HASTEAR

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Lizartzan herenegun erre zuten 'ljiitoa'; Leitzan oraindik ere bi egun dituzte; Tolosan etzi hasiko dira 4

Abel Barriola «oso gustura» garaipenarekin

LEITZA Binakako Txapelketan 22-9 irabazi zuen Gonzalezekin, Bengoetxea-Ruizen aurka 7

19-90 19-90 19-90

BISITA GAITZAZU INAUTERIETAN!!!

- JATORRI DESBERDINETAKO ARDOAK
 - PINTXO BEREZIAK
- MUSIKA ELEKTRONIKOA
- GAU GIRO BIKAINA

IBON LEUNDA
KOLDO SARASOLA
AITZIBER JAUREGI

EUSKAL HERRI PLAZA 5 • 20400 TOLOSA

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

Aldaketak Inauterietan, aparkaleku eta trafikoan

Gizartea » Udaletik garraio publikoa erabiltzea gomendatu dute, 'Inauterietan Inauteri, garraio publikoa erabili' lelopean.

ERREDAKZIOA

Etzi hasiko dira Inauterietan, eta koloreek, algarak, mozorroek, musikak... hartuko dituzte Tolosako kaleak. Egun horietarako, ordea, badira herritarrek kontuan hartu beharko dituzten trafikoa eta aparkalekuei dagokionez.

Autobiatik etorri eta iparraldeko irteera hartzen dutenek aukera izango dute gasolindegia ondoan egokitu duten orubean aparkatzeko. 200 bat ibilgailu sartzeko lekua dago. Hau beteta badago eta leku bila erdi aldera jarraituz gero, Anoeta aldera jo beharko da gero.

Bestalde, Rondilla kalean garaiea dutenek, Gorritik aurrera trafikoa erabiltzea dagoen orduetan, ibilbide hau egin beharko dute: Naparzubitik sartu eta Enperadore kalea, Gorriti plaza eta Kale Barrena. Orokorrean, eta modu iraunkorrean, Rondilla kaleatik erdialdera sartzeko aukerarik ez da izango Zaldunita Bezperako 16:00etatik Hausterre eguneko goizera arte.

Usabalen eta Olarrainen

Autobiatik etorri eta Usabalen irteeratik aurrera aparkatzeko lekua bilatu beharko dute industrialdean eta Iurren, garai batean kiroldegia zegoen lekuan egokitu duten aparkalekuan. Zona honetan bizi diren erdialdeko (Usabal) eta hegoaldeko (Olarrain) irteeratik erabili beharko dituzte.

Olarraindik datozenei gomendatzen zaie Araba etorbidea hartzea eta, gero, lurrazpiko pasabideetik barrena San Esteban aldera jozte. Hor, aparkatzeko leku handi bat egokitu dute, biribilgunearen ondoan, 400 ibilgailu baino gehiago sartzeko direlarik.

Bestalde, Kondeaneko aldatik Ibarra-Leitzara jotzeko bidea erabiltzea egongo da, garraio pu-



Tren zerbitzua berezia izango da Inauterietan, autobusena bezala. J. SAIZAR

blikoarentzat eta taxientzat izan ezik. Horregatik, zona horretan bizi direnek Amarotz eta Izaskun auzoetatik barrena ibili beharko dute. Era berean, Ibarra-Leitzara joateko, Usabalen Ibarra-Leaburu saihesbidea hartu behar da, eta Zumaiingo tuneletik barrena jarraitu.

Inauterietarako aparkalekuak

Hainbat lekutan ezingo da aparkatu. Etzi eta ostiralean, San Frantzisko (Foru eta Oria tardean) eta Oria kalean (ezen-plaza inguruan) 12:00etatik aurrera.

Ostegun Gizenean Barrena eta Rondillan aparkalekua debekatuta egongo da 20:00etan hasi eta 09:00ak arte, eta baita Zaldunita Bezperan 16:00etatik asteazkeneko 10:00ak arte.

Zaldunitan, Nafarroa etorbidean (eskubi aldean), Pedro de Tolosa (ezker aldean), Foruen etorbidean (San Frantziskotik Nafarroa etorbideraino) eta Zumalakarregin (ezker aldean) ezingo da aparkatu. Asteazkena, otsailak 06, 14:00ak arte izango da.

Igarondo, San Esteban eta Berazubini uzteko gomendioa

Udaletik festa-egun hauetan aparkatzea debekatuta dagoen lekuean gainontzeko egunetan ibilgailua aparkatu ohi dutenei eskatu

diete, egun hauetarako egokitu diren aparkalekuetan uzteko ibilgailua: (Igarondo igerilekuan, San Esteban eta Berazubini).

Garraio publikoa

Garraio publikoa erabiltzea gomendatu dute Inauterietan Inauteri, garraio publikoa erabili lelopean, eta hauetan ere bada aldatetarik. Tolosaldea Busek, esaterako, Santa Klaran izango du geltokia; Ibarra, Leitza, Amarotz, Txarama, Gaztelu eta Lizartza aldera doana Ostegun Gizenean Asteartitar izango da 01:00etan, 02:45ean eta 04:15ean; Amezketan aldera doana ere egunero izango da, 00:00etan, 02:00etan eta 03:30ean.

TSST autobusek Usabal, Kondeaneko aldatan, Santa Klaran eta Bialen izango ditu geltokiak. Zaldunitan, Astelenitan eta Asteartitar izango ditu zerbitzu bereziak. Tolosako hiribusak ere ibilbide desberdina egingo du egun horietan. Gainerako autobus zerbitzuak Larramendi kalean, Arretxe lorategi ondoan eta Amarozko bus gurekuan geratuko dira.

Trenari dagokionez ere zerbitzu bereziak eskainiko dituzte Zaldunita Bezperan, Zaldunitan eta Astelenitan. Bi noranzkoetan tren gehiago izango dira, bai egunez, bai eta gauzez ere.

Real eta Atletico Madrilen arteko partida ostiralean, Usabalen

Kirola » Indoor Futbol Ligako I. Lehiaketako partida izango da; jokalariek beterrak hartzen dute parte bertan.

ERREDAKZIOA

Indoor Futbol Ligako I. Lehiaketako partidak Realak Tolosan jokatu ditu, Usabal kiroldegian, eta hain zuzen ere, aste honetan bertan, ostiralean izango da Tolosan

jokatuko duten lehendabiziko partida. 20:00etan izango da, eta Atletico Madrilen aurkakoa izango dute. Partida ikustera joateko sarrerak salgai daude Shanti Kirolak denda, Usabalgo Bide Bide tabernan eta Anoetako Haizea tabernan.

Ostiraleko partida Futbol jokalariek beterrak hartzen dute parte bertan. Ostiraleko partida Futbol jokalariek beterrak hartzen dute parte bertan. Ostiraleko partida Futbol jokalariek beterrak hartzen dute parte bertan.



Kiroldegiko arazoak eta kexak aztertuko dituzte, eta konponbidea eman. HITZA

Usabalgo eguneroko martxa aztertuko lan taldea osatu dute

Kirola » Hilabetez behin erabiltzaileen ikuspegitik aztertuko dute; arazoak baloratu, eta hobekuntzak proposatuko dituzte.

ERREDAKZIOA

Usabal kiroldegia arazoak, erabiltzaileen kexak, instalazioaren hobekuntzak kontrolatu eta hileroko aztertuko duen taldea osatu, eta martxan jarri dute. Hain zuzen ere, Usabalgo erabiltzaileek, klu-

betako ordezkariak, udal kirol teknikariak eta Usabal kiroldegiko kudeatzaileak osatu dute taldea.

Tolosako Udalak pasa den urteko azaroaren 12an eginiko kirol batzordean erabaki zuten lan taldea sortzea, kiroldegiko martxa aztertuko. Lan taldean parte hartzerantz animatu diren erabiltzaileei urteko konpromezua eta hilabetez behin eguneko erabiltzearen abontuaren hitza hartzea eta bilerara ekartzeko ardura hartzea eskatuko zaie, eta urteko abonua eta urte bukaeran afaria jasoko dute.

Hilberriak

ANA M^a ALTUNA IRASTORZA

G. B.

Gazte gazterik hasitakoa gure ikastolan lanean Garagartzako gela handian dantzan ikasle artean ikastolako ospakizunen ardura beti soinean Zenbat umore ta alaitasun Ana hire konpasean Hire musikak jarraituko din Jakintzaren bihotzean.



ORDIZIA

2008ko urtarrilaren 29a

Jakintza ikastolako guraso, irakasle eta ikasleak

ANA ALTUNA IRASTORZA

(Jakintzako musika irakaslea)

Urdaneta-Oiaguren eskola komunitatearen izenean, agur bero bat.



ORDIZIA

2008ko urtarrilaren 29a



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Laskorainek 6-2 hartu du mendean Bilbo Exbasa

Areto Futbola » Usabalen Kalderero egunean jokaturako partidaren ostean, hirugarren postuan mantzentzen da taldea.

ERREDAKZIOA

Denboraldiko hamabigarren garaipena poltsikoratu zuen Laskorainek kalderero egunean. Usabal kiroldegian jokaturako partidaren ostean, 37 punturekin sailkapeneko hirugarren postuari eusten dio horitxoentzako. Liderrarengandik hiru puntutara dago orain. Ikastolakoek ez zuten errukirik izan iaz azpitxapeldun amaitu zuen Bilbo Exbasarekin, eta 6-2 gailendu ziren.

Partidak, bigarren erdiko hasierako minutuetan izan ezik, Laskorain izan zuen jaun eta jabe. Horitxoek joko hobea erakutsi zuten orokorrean eta bilbotarren puntu ahulak agerian ipini zituzten. Zilarrezko Mailan lehiatzen duen klub bateko filialari dagokion bezalakaritate tekniko handiko jokalaririk ditu Bilbo Exbasa taldeak. Baina lanerako eta ahaleginerako presutasun eskasekoak, partidak irabazteko kalitatea edukitzeaz gain

korri ere egin beharra dagoela oraindik ulertu ez duten horietakoak dira bizkaitarrak.

Partidaren hasiera

Alonsoren mutilen garaipena hasieratik antzeman bazen ere, bitxia eta korapilatsua izan zen. Hasteko, bilbotarrek lehen zatian izandako golaukera bakarrean partidako estraineko gola sartu zuten. Hala ere, atsedenaurretik, Saldias kapitain eta pitxitxiak lehendabizi eta Yustosekin 1-2koa eginda Otxoa ibartarrak segidan, 2 eta 1eko ipini zuten. Dena den, horitxoentzako ez ziren arazoak amaituko.

Bigarren zatian sendotuz

Aldageletatik irteerako Bilbotarrek beraien jokurik onena eman zuten eta lan eskerga egin behar izan zuen Domentxe horitxoaren atezainak 2 eta 1ekoari eusteko. Bilbotarrek oparia lortu zuten azkenean: kontraeraso bat ekiditeagatik epaileek Giller kanpora bota baitzuten, bi minutuetarako edo berdinketararte etxekoak bat gutxiagorekin utzi zelaian.

Domentxe, Gil, Amatriain eta Barriolak aparteko erakustaldia eman zuten bi minutu horietan. Gainera, batgutxigo izan arren, go-

lik ez jasotzearekin batera, partida erabaki zuten. Hau Barriolaren bi golei esker gertatu zen. Minutu zirragarriak izan ziren oso, baina partidako uunerik zirrargarriena Barriolaren bigarren gola suertatu zen.

Partidako jokaldi onena

Barriolak, defentsan pase marra bikain presionatuaz, baloia berreskuratu eta kontraeraso bizkorra burutu zuen atezain bilbotararen aurreraino iritsiaz. «Jokalaritza txarrak, ertainak, onak eta oso onak bereizten dituen trantze horretan», Unai balaio bere bizkarretik gora jaurtiz «puxika bat marraztu zion atezainari, txapela kentzeko moduko gola sarera-tuaz». Zaletu guztiak zutik ipinita txalotu zuten gola.

Ondoren Barriolak bere hirugarren gola sartuko zuen, hat-tricka sinatuaz eta Saldias bere bigarrena, azken minutuan iritsiko zelarrik bilbotarren 6 eta 2-koa. Arratsalde errepikaezina igarota, oso pozik irten ziren Usabaldik laskoraindar protagonistak. Aipatu, debutatu ez bazuen ere, Led filialeko kapitaina goiko taldearen deialdian egon zela lehendabiziko aldiz.

Gauzek oker jarraitzen dute Tolosa-Aralarrentzat

Saskibaloia » Asteburuan galdu ondoren, sailkapeneko azken postuan dira eskualdeko saskibalo taldekoak.

ERREDAKZIOA

Gauzak okertzen ari zaizkio Tolosa Aralarri azken partidetan. Azken sei porroten ostean, sailkapeneko azken postuan dira eta portara aldaketa baten behar izan da lehenbailehen, bigarren fasera ahalik eta egoera onenean iristeko.

Partidara Albertoren bajarekin joan ziren tolosarrak eta jubenilik bidaiatu ez zenez, hamaika jokalarirekin aurkeztu ziren Gasteizera. Joaneko partidako garaipenaren ostean, helburua bera zen kanpotarrentzat. Are gehiago, aurkari zuzena zela kontutan hartuz eta emaitzak bigarren fasarako balioko zuela.

Partidaren gora-beherak

Partida hasieran nahiko parekatu-rik joan ziren gauzak. Hala ere, defentsan ahul xamar ibili ziren Jimmy-ren mutilak eta honen ondorioz, berehala hartu zuten aurre etxekoak. Lehen laurdenaren amaierara 20-10 iritsi ziren. Bigarren laurdenean gauzek bide bere-

tik jarraitu zuten, etxekoak erasoan egin beharreko eginez eta defentsan gogor arituz, tolosarrak gailenduz. Atsedendira partida irabakita joan ziren (43-23).

Atsedendaldirik bueltan, saiakera egin beharra zegoen markagailuari buelta emateko, baina honen ordez, 8-0ko partziala jaso zuten eta behin betikoz partida irabakita geratu zen. Laurden honetan 10 puntugatik irabazi zuten etxekoak eta aldea 30 puntutara zabaldu zuen laurdenaren amaieran (63-33).

Azken laurdena, gutxienez, irabaztea lortu zuten tolosarrek (8-16), baina ez zuten ezertarako balio izan, basket average-a ere urrutit geratu baitzen.

TAKEko erredakzioek orain honetan epaileen lana salatu zuten. «Partida hasieratik ikusi zen garaila nork izan behar zuen». Beraien esanetan, «etxekoek joko gogorra baimendu zuten une oro, esate baterako lehen laurdenean bi falta soilik adieraziz». Honez gain, izan zuten jarrera «harroa» gaitzetsi zuten.

Datorren astean, nahiz eta Inauteriak izan, txapelketak ez du atsedetik hartuko, eta tolosarrek hirugarren sailkatua den Zornotzaren bisita jasoko dute, larunbat arratsaldeko 16:00etan Usabal kiroldegian.

Xabino Etxeberria izan da garaile II. Tolosako Xake Txapelketan

Xakea » Bigarren postuan Migelmari Baroja geratu zen, diferentzia gutxiarekin; desberdintze sisteman puntu erdiz galdu zuen.

ERREDAKZIOA

Aurreko asteburuan xake aktiboko II Tolosako Xake Txapelketa jokatu zen Amaroako auzo lokal-tan. Txapelketa hamabost minutuko partidetak jokatu zen. Bestetan jokatu izan den bost minututako partiden aldean jokalariek partida gutxiago jokatu zituzten baina xake maila hobea ikusteko aukera eskaini zuen horrek.

Sabino Etxeberriak irabazi zuen txapelketa, asko sufritu ondoren. Izan ere, bigarren geratu zen Migelmari Barojaren puntu bereberkin amaitu zuen txapelketa eta desberdintze sisteman puntu erdi batez bakarrik lortu ahal izan zuen lehen postua. Hirugarren David Moreau izan zen, bost minututako partidak baino joko erritmo hau hobeto doakiola erakutsi zuelarik.

Bestalde, txapelketara hainbat



Tolosako Xake Txapelketako irabazleak ikasleekin batera. HITZA

ikasle ere etorri zen, txapelketa Tolosaldeko Eskolarteko Jokoetarako prestaketa gisa aprobetxatu asmoz, eskolarteko txapelketa hamabost minutuko partidetak jokatu zuten baita, baita ere. Hain zuzen

ere, Eskolarteko Xake Txapelketak izango dira eskualdeko xakelari gazteenen hurrengo topagune. Otsailaren 10ean hasiko dira norgehiagokak, 11:00etan, Kultur Etxean.

Asteburu bikaina izan da Tolosa CFkoentzat

Futbola » Zortzi taldetatik bakarrik galdu du asteburu honetan; Hirugarren Mailakoak berdinketarekin konformatu behar izan dira.

ERREDAKZIOA

Emaitza onak lortu dituzte oro har Tolosa CFko futbol taldeek, asteburu honetan. Hirugarren Mailakoei dagokionez, hauek izan ziren berdinketa erdietsi zuten bakarrik. Zarautzen kontra jokatu zuten larunbatean, eta 0-0ko emaitzarekin amaitu zuten norgehiagoka. Jardunaldi honen ostean, sailkapeneko 16. postuan dira. Hurrengo partida Lagun-onak kontra izango dute.

Neskei dagokionean, partida guztian nagusi izan ondoren, azken zatian sartutako gol bati esker, 0-1 irabaziz itzuli ziren Zarautzik. Hauen kontra jokatu baitzuten asteburukoan.

Jubenilen Ohreko Mailakoak

ez ziren gustura etorri Antiguotik. Donostiarrek 4-2 irabazi baitzieten urdinei. Lurraldeakakoan, Lehendabiziko Mailakoentzat berriz gauzak hobeto joan ziren. Hauek 2-leko emaitzarekin garaitu zituzten Usurbilgo jokalariek.

Ohreko Jubenilen Mailakoek, Kopan eta jaitsiera postuetan dihardutenek Aloña mendikoak izan zituzten aurkari. Hauek erraz irabazi zieten aurkari, eta 1-4ko emaitzarekin, hiru puntu poltsikoratu zituzten.

Kadeteentzat ere asteburu oparoa izan dela esan daiteke. Alde batetik, Ohreko Mailan jokatzeko dutenek, Hondarribia izan zuten aurkari, eta 2-1eko emaitzarekin partida irabazi zuten. Bestetik, Lehendabiziko Mailakoek, erraz irabazi zioten Aitzgorriri. Markagailuan 5-1 ikus zitezkeen amaitu zuten norgehiagoka.

Azkenik, Ohreko Infantilen Kopan tolosarrak izan ziren garailak. 5 eta 1eko emaitzarekin aurreratu zitzaizkien Anaitasunakoei.

Lizartzan 'ijitoa' erre arren, Atsauren jaia aurrera Leitzan

Inauteriak » Lizartzan herenegun amaitu ziren Inauteriak eta Leitzan bi egun eta gau bat geratzen dira lhoteei agur esan aurretik.

ASIER IMAZ

Lizartzan herenegun amaitu ziren Inauteriak *ijitoa* erreaz. Leitzako lhoteeetan oraindik bi egun eta gau bat dituzte erretzeko. Gaur 09:30ean baserrietako eskea eginez, Erasote auzora joango dira leitzarrak, ondoren Txan Magoaren emanaldia egongo da Zinean, 11:30etik aurrera.

'Ijitoa' ren azken ostikada

Lizartzan *ijitoak* herenegun eman zuten azken ostikada, 20:30ean erre aurretik, alegia. Inauterietako azken eguna ordea 11:00etan hasiz; Agintari, dantzari eta txistulariak Meza Nagusitik irten eta haiketako egun zutenean.

12:00etan kalean zehar ibili ziren puskebiltzen, herriko pilotalekuan egin zen herri bazkarira joan zirelarik ondoren, azken bazkaria ospatzeraz.

Atsauren kalejira eta lehiaketa

Leitzan bihar amaituko dira lhotetak, haur eta gaztetxoentzat antolatutako zine emanaldiarekin. Atzo baserrietatik barrera eskean ibili ondoren, arratsaldea haurrek hartu zuten puzgarri artean jolas egiteko.

Gaur berriz garai bateko Atsauren kalejira ikusteko aukera egongo da eta 02:00etan Gaztetxean Atsauren Lehiaketa egingo da, Karaokearekin batera.

» LEITZAKO IHOTEAK

Gaur

- **09:30.** Baserrietako eskea: Erasote auzora.
- **11:30.** Txan Magoa Zinean.
- **14:30.** Aurrera elkartearen bazkaria.
- **16:30.** Ume eta gaztetxoaren kalejira plazatik Incansables txarangarekin.
- **17:30.** Txokolatada, buru handiak eta Aralar udal musika eskolako fanfarrea plazan. Ondoren goxokiak banatuko dira.
- **18:30.** Garai bateko Atsauren kalejira.

■ **19:00.** Gau-Bela taldea Karra-pen.



■ **23:30.** Gau-Bela taldea Karra-pen.

■ **Ondoren.** Incansables Txaranga-ren emanaldia.

■ **02:00.** Karaokea eta Atsauren Lehiaketa egingo dira Atakabeltza Gaztetxean.

Bihar

- **17:00.** Haur eta gaztetxoentzat zuzenduriko zine proiektzioa ikusteko aukera egongo da lhoteei amaiera emateko.



Leitzako haurrak imaginazioa landu zuten puzgarrien zain zeudela. ASIER IMAZ



'Mr. Bean'-etik hasi eta ilargirainoko bidaiaren prestaketa ikusteko aukera izan zen Inauterietan. Erdian, Lizartza eta Leitzako lhoteeetako partaide txiki eta helduak. ASIER IMAZ

B Blogteka info

Piztu itxaropena

Badago esaera bat arabiarrek maiz erabiltzen dutena: «Hildako arku-meak ez du minik sentitzen larrutzen dutenean». Hots, hainbeste jipoiu dutenak ez du sufri-mendua nabari. Hein handi batean Sahararrek halako zer edo zer sentitzen dute. Gerra luze batek sufrimendura ohitzen du edonor. Tiro hotsen bolumena mutu-tu bada ere, bortizkeriara, gorrotara ohitu badira ere, Mendebaldeko Sahara oraindik setiatua dago. Egungo setioak, ordea, ezaugarri berezi bat du: gosea. Saharako herriaren borondate politikoa kontrolatzeko sistema da gosea.

Tindoufeko (Aljeria) errefuxiatu guneko egoera oso larria da. Daukaten elikagai gabeziarekin ezinezkoa dute baldintza duinetan bizitzea. Deitoragarria da Frantziaren presioaren ondorioz Nazio Batuek Saharako herriari ematen dioten laguntza %43 gutxitu izana. Arazoa kronikoa bihurtzeko arriskua dago.

Kilo bat arroz, kilo bat azukre, olio, konpresak, aspirinak... Gauza txikiena handi bihurtzeko ahalmena dutela erakutsi izan dute desertuko kanpalekuan bizi diren Sahararrek.

Bosgarren aldia da Tolosaldea Sahararekin elkarteak *Piztu itxaropena* kanpaina martxan ipintzen duela aipatutako elikagaiak Tindoufeko (Aljeria) errefuxiatu kanpalekuetara bidaltzeko asmoarekin. Iaz 8000 kilo elikagai bildu ziren gure eskualdean eta aurten oraindik hila bete amaierararte aukera dago elikagaiak Tolosako BM, Center eta Maxi dendetan edo hainbat herritako udaletxeetan uzteko.

Aurreko urteetan bezala, garrairako kamioiak ere erosiko dira. Horretarako udalen, Eusko Jaurlaritzaren, eta hainbat enpresaren laguntza jasoko da. Ibilgailu horiek errefuxiatu kanpalekuetara iritsitakoan, bertan geldituko dira, kanpalekuetara heltzen den giza laguntzaren banaketan erabiltzeko.

Gidari guztiak boluntarioak dira. Alacantera (Herralde Katalanak) joango dira, eta handik bueltan etorriko dira. Elikagaiak itsasontzi batean sartzen dituzte, eta Oranneraino (Aljeria) eramaten dituzte. Handik, Fronte Polisarioren zaintzapean, desertuko kanpalekuetara, Tindouferra, 2.000 kilometroko bidea egin ostean. Fronte Polisarioren Hornidura Batzordearen bitartez egiten da banaketa herritar guztien artean. Janariak familia edo-eta erakunde bakoitzak ezarritako kuota baten arabera banatzen dira.

Saharako Herriaren askapen borroka gehiegi luzatu da. Badago, ordea, arabiarrek maiz erabiltzen duten esaera bat, itxaropenaren atek zabalik mantentzen dituen:

«Pazientzia da arazo oro konpon-tzeko giltza».

Maroko Sahararik at, autodeter-minazioa eta independentzia Mendebaldeko Sahararentzat.

Tolosaldea Sahararekin

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/sahararekin>

Propaganda garaia

Larunbateko manifestazioetan esan zenez (Botereak) badaki ideien borroka hau oso inportante dela. Hau da, propaganda ezinbestekoa da. Haien dirua daukate-hobe esanda: haien gure dirua kudeatzen dute. Haien boterea ematea nahi dutena egitea iruditzen zaie: proiektuak inposatu eta gure diruarekin nahi duten bezala erabili.

Eten gabe publizitatea: AHT tren arrunta bat baina 9 aldiz gutxiago kontsumitzen duela? Hori da propaganda: aukerak erabiltzea ideiak zabaltzeko, gezurrak barne!

Gauzak ez dira esaten (adibidez aurrekontua), gauzak direla hobeto aurkezten dira (adibidez egitasmo hau ingurumenaren aldekoa dela) eta gezurrak esaten dira (adibidez 9 aldiz...). Edozeinek daki potentziaghiago edo abiadaghiago lortzeko energia gehiago behar dela eta beraz gehiago hau termikoki erregaietatik lortzen den energia gehiago erre behar dela. Abiadura handia (lortu nahi dutena) hegazkin baten energia suposatzen du. Beraz, Kiotoko hitzarmenaren arabera, helburua energi eta CO2 ekoizpena gutxitzea da eta ez hegazkin hegaldia bultzatzea edo trenak hegazkinak bihurtzea!

Eta gero euskal CO2a hartzeko Ibarretzek eniatarrei dirua ematen die edo adituak kontratatzen ditu hari laguntzeko aspalditik gabiltza horretan: garraio eta energia eredu aldatu bertan behera! Eta gero Agenda 21ekin etorriko zaizkigu ere. Mesedez!

Eta propagandaren beste alde da besteak isilaraztea, aukera ez ematea (orain arte gertatzen ari den bezala) edo entzungorra egitea.

Tolosako manifestazioak eragin behar du (ziur aski gure Udala Bilbon izango zela larunbatean, baina jakin behar dute oposizioa herrian benetazkoa dela eta areagotzen ari dela. Kalera dihoana konturatuko da zenbat pankarta eta kartelak (haietariko asko eskuz eginak) dauden. Askok azken egunetan jarritakoak izan direla pentsatuko dute, eta zuzen daude. Azken egunetan jarri ziren aurretik asko kenduak izan zirela. Oraindik ez dakigu nork edo nola, baina herri tole-rante honetan non ttukuna mantentzeko zela erabiltzen eta pintadak baztertu asko ez dute onartzen. Kartelak kendu dira eta ez zikintzen zutelako baizik eta edukina ez zen haien gustokoa. Gauza da gure baliabide bakarra

dela. Honetaz lekukoa naiz eta nazka ematen dit.

Kriminalizazioa hasi da eta propaganda garaia ere bai.

Ekologistak martxan

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/martin>

Zenbat zabor sortzen dugun

Agenda 21 dela eta, joan den astean eskolan zenbat zabor sortzen dugun eta zenbat paper gastatzen dugun aztertu genuen. Horretarako egunero geletako, jangelako, irakasle geletako eta patioako zabor pisatu genuen eta erabilitako papera ere neurtu genuen. Aste honetan, herrira jaitzi gara kaleetako edukiontzia zenbatzera, eta ikustera ea zer moduz zeuden: beterrik edo hutsik, hondaturik edo ondo.

Zabor orokorra botatzeko edukiontzia berri-berri jarri dira herrian.

Eta oso ongi pasa genuela esan behar dugu.

Doctor Fleming

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/fleming>

Z Zurea da hitza info

Eta Inauteriak gogoko ez ditugunotzat zer?

Tolosa » Geltokian lehen lasai-lasai bizi ginen eta orain ezinezkoa da gustura egotea; jendea eta soinu-a nagusi

ELENA (TOLOSARRA)

Badirudi tolosar guztioi gustatu behar zaizkigula Inauteriak. Ezin omen gara bizi jai hauek gozatu gabe. Desiatzen egoten omen gara Ostegun Gizona noiz helduko.

Bada, salbuespena izango naiz, guztien artean salbuespena: arraroxamarra izango naiz, oso arrarok. Baina tolosarra naiz jaiotzez eta ez zaizkit Inauteriak gustatzen. Eta behin eta berriz errepikatzen dut.

Gauzabat da herriko jaiak izatea eta normala den bezala ba herria pixkat aldatuta egotea. Pittin bat sufritzea normala da baina herria-

ren «periferia» ere hartu dute erabat. Hasieran Geltokia errotazio sistema bidez deskantsatu egin behar zuen baina orain ia barrakak beti hemen jartzen dituzte. Lehen-go urtean kotxeko retrobisorea puskatu zidaten eta noski, inor ez zen kargu egin.

Kotxekin ezinezkoa

Bale, Geltokin ezin det aparkatu, ados. Baina arazoa da ezin naizela inondik pasa, dena itxita dagoelako, dena paralizatuta! Nire alaba Alde Zaharrea bizi da eta goizeko 6etako doa lanera. Kontutan edukita Inauteriak direla normalean baino ordu erdi lehenago esnatu behar du... Kotxe bila jun lehenik eta herriatik atera-sartu ondoren.

Pentsatu pixkat gehio Inauterietaz disfrutatzen ez dugunotzat, arraroak izango gea baina ez gea hain gutxi...

Otsailean zure kioskoan



Egin zaitetz harpidedun:
hitzen hapidedunentzat eskaintza berezia: **18 €/urtean**

Deitu 943 30 35 54



Amezketako Talaiak izako saio batean. Eskuinean, Abaltzisketako Txantxoak. Jantzera oso diferentea dute, baina dantza oso antzekoa da. N. URBIZU

Talaien eta Txantxoan txanda iritsi da igandean haien dantzak eskainiz

Gizartea » Amezketan eta Abaltzisketan 09:00etatik aurrera haien herrietako makil dantza bitxia egingo dute, puska biltzarekin.

NEREA URBIZU

Inauteriak gainean, Amezketan eta Abaltzisketan egun bikainak igarotzen dituzte bertan ere. Tradizio handiko Inauteriak dira hauek, aspaldikoak. Herriarrek, ia ahaztuta dute egun hauen jatorria non den. Halaz gutziz, Tolosako Inauterietan batera ospatzen dituzte: Abaltzisketan igandean, eta Amezketan jaiean eta astelehenean.

Batez ere gazteak izaten dira protagonista egun horietan, dantzan ateratzen baitira bi herrietan, eta baita eskean ere. Bakoitzak bere jantziak soinean: esan beharra da, dantza ia berdina bada ere, jantziek ez dutela zerikusirik. Abaltzisketako txantxoek jantzi ederrak dituzte, koloretsuak eta oso landuak. Dantzako pausoak, berriz, geldo xamarrak izaten dira. Amezketan dantzariak ez dute jantzi koloretsuen beharrik: ma-

honezko galtzak jantzi, ator zuria eta txapel beltza: artzaiez jantzi, hain zuzen. Baina, dantza Abaltzisketan baino dezentez arinago dantzatzeko dute, eta neskek parte hartzen dute, nahiz eta gizonez jantzi azaldu.

Tradizio handiko dantzak

Bi herrietan dantzatzeko den dantzan 8 laguneko taldea behar izaten da, eta bi lerrotan jarrita dantzatzeko da. Abaltzisketan nahiz eta

Bi herrietan dantzatzeko den dantzan zortzi laguneko taldea behar da, bi lerrotan jarrita

Tolosako Inauterietan ospatzen dituzte: bi herrietan igandean eta Amezketan astelehenean

mutilen faltan noizbait ibili, beti konpondu izan dira, eta nola edo hala gizonetako zortziko taldea osatzea lortu izan dute. Azkeneko urte hauetan, hala ere, poltseroaren papera emakumeak utzi izan zaio (erraztasun pasatzen du dantza-

rien saioaren aurretik: artzain-gizonetako jantziak eta puska biltzen du).

Ez da gauza bera Amezketan gertatzen: duela 32 bat urte berreskuratu zutenetik emakumeek beti hartu ahal izan dute parte, nahiz eta beti horrela ez izan, batzuetan beharrik egon ez delako. Ustez, herriarrek arabera, 1983an izan zen lehenengo aldiz emakumea dantzan.

Txantxoan eta talaien dantza garai batean desagertzeaz egin zen. Txantxoak XIX. mendean baina omen zirela esaten dute herrian. Gerra ondoren galdu egin zen ohitura, eta berreskuratu egin zuten duela 17 urte inguru. Amezketako kasuan ere berdintsua esaten da: gerra garaian galdu egin zen, baina ondoren jarraitu egin zuten dantzatzeko. Urte batzuen buruan utzi egin zioten dantzazeari, duela 32 urte arte.

Abaltzisketan Orendain aldera

Igandean Abaltzisketan Orendain aldeko baserrietara jotzen dute lehendabizi. Ondoren, herriko elizaren aurrean mezatik ateratzen direnei eskaintzen diete dantza, 10:30 aldera, hain zuzen. Jarraian, Larraitz aldera joaten dira eta hango baselizako meza ospatu ondoren beste saio bat egiten dute.

Dantzariak ez dute normalean entsegurik egiten: igandean elkartzen direnean, jantzi eta orduan gogoratzen dute dantza, pare bat aldiz eginda.

Aspaldiko tradizioak dantzetan ikusteko, beraz, igandean bi herri hauetara joateak merezi du.

TALAI TALDEAK DEITUTAKO BILERA ETA ENTSEGUA BIHAR

Amezketako Talai taldeak deituta, bihar iluntzean entsegu bat egingo dute. 20:00etan udaletxearen azpian egingo dute. Makilak eskutan hartu eta urtean bi egunetan dantzatzeko dutena gogoratuko dute, igandean eta astelehenean arazorik ez izateko.

Ez dira garai onetan aurten Inauteriak, azterketa garaia ere baita askorentzat, eta Amezketan eta Abaltzisketan dantzariak gazteak dira. Halere, Talai taldeak deialdia luzatu die dantzan egin nahi duenari, nahiz betikoak, nahiz berriak izan. Interesa duenarentzat, ondo pasa eta ohitura zaharrak mantentzeko nahi duenarentzat da deialdia, bai neskenentzat eta baita mutilentzat ere.

Bertan ere hainbat puntu eta gai zehaztuko dituzte, guztiak dantza-ekin, ordutegiaren eta ibilbidearekin lotutakoak izango dira.

» ORDUAK

AMEZKETAKO TALAIK

■ **Igandean.** 09:00ak aldera Zazpi-Ilturri elkartearen biltzen dira eta han erabakitzen dute taldea nola banatu. Egun osoan zehar ibiltzen dira puska biltzan. Ugarten eta San Martinen ere ibiltzen dira.

■ **Astelehenean.** 09:00ak aldera Zazpi-Ilturri elkartearen bildu eta puska biltzan aritzen dira baserri baserri. Gero afaria egiten dute.

ABALTZISKETAKO TXANTXOAK

■ **Igandean.** 09:00ak aldera ateratzen dira eta baserri ia guztietara joaten dira. Meza Nagusiaren ondoren elizaren aurrean dantzatzeko dute. Ondoren Larraitz aldera joaten dira eta bertako ermitan ere dantzatzeko dute.

Laburrak

Aurrera-Saiatz pilota eskola Inauterietan ere ariko da

PILOTA » Datorren ostiralean Aurrera-Saiatz pilota eskola Euskadiko Klub Txapelketan ariko da, Bidegoianen bertan. 19:30ean izango da lehena, kadeteen arteko binakakoa Añorgaren aurka. Ondoren, jubenilen arteko Ilunperen kontra. Larunbatean, berriz, Beotibarren 10:30etik aurrera hiru partida izango dira: jubenilen arteko, 22 urte azpikoena eta seniorren arteko. 16:30ean 22 urte azpikoena binakakoa eta ohorezko seniorren binakakoa izango da (Renobales-Lopetegi).

EHNA tramitatzeko aukera dago Udaletxean

ALTZO » Urtarrila eta otsaila osoa bitartean Altzoko Udaletxean EHNA tramitatzeko aukera izango da. Udaletxeko ordutegiaren baitan egin daiteke (eguerditan). Euskal Herriko Nazioartasun Aitormentza egiteko 15 euro, errolda agiria eta hiru argazki txiki behar dira.

Eskiatzera joateko izen-ematea ostiralera arte

ALTZO » Candanchura (Aragoi, Espainia) eskiatzera joateko autobusa antolatuko dute Altzo, 3 euroren truke. Izena udaletxean eman behar da ostirala baino lehen (943 65 24 13). Otsailaren 10ean joango dira 06:30ean ateraz. Itzuleran, berriz, 20:30a aldera egingo dute.

Ohiko bilkura egingo dute bihar arratsaldean

AMEZKETAKO » Bihar 20:30ean Amezketako udaletxeko pleno artoan ohiko plenoa izango da. Udalkide guztiak azaltzea eskatu du Jexus Iñurria alkateak. Bertan, besteak beste, ondoren zehazten diren gaiak aztertuko dituzte beste artean: 2007ko abenduaren eguneko ohiko bilkuraren akta onartzea; Kultur Etxeko inbertsio gastuaren urteantzeko izaera onartzea; 2008. urteko udal aurrekontu orokorrak eta langileen zerrenda-plantila organikoaren onartzea.

Ohiko bilkura gaur egingo dute 18:00etan

IBARRA » Gaur ohiko bilkura izango da Ibarako udaletxean 18:00etan. Bertan honako gaiak jorratuko dituzte: 2007ko abenduaren egundako bilkuraren akta onartzea; alkate Dekretuak; Rafael Poza arkitektoarekin eta lankidetzako taldearekin sinaturiko aholkularitza eta laguntza kontratua deusezteko Ibarako Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikusketa agiria egiteko; Udalerdiaren akta onartzea; kide anitzeko organoetan; lankidetzako hitzarmena udaltalde 21, Tolosaldea Garzeta eta eskualdeko udalak; torturei buruzko mozioa eta beste alderdien ordezkoko mozioa.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Egurra.** Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera enbragatzen da. 615 755 762.

@ Eztabaida. Eusko Jaurlaritzak sokamuturrari buruzko araudi berriaren zirriborroa egin du, eta hainbat herritar ez dago ados. Tartean, hemendik aurrera 16tik gorakoak bakarrik atera ahal izango lirateke. Zer duzu esateko? Eman zure iritzia!

www.tolosaldekohitza.info

G Gutuna

Adunako Arantza Aburuza alkateari

Esan didatenez, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN, profesionala iruditzen zaidan egunkarian, niri buruzko testu bat idatzi da. Esaten denez, Arantza Aburuza Alkorta alkatearekin —frankista betidanik, jakaz hainbat aldiz aldatu dena, udaletxean jarraitzeko interes bakarrekin, botere politikoa eta ekonomikoa izateko, dagoeneko berak eta bere ahizpak babeseko etxebizitzak dituzte beraien aitak Adunan etxebizitzak hutsak dituen eta gazte asko etxebizitzarik gabe dagoenean 80.000 euro eskaini zizkidan, 15 eguneko epea erantzuteko desjabetze espedientearen aurretik. Hori meha-

txua da, Villabonan garaje batek balio duena da. Nire erantzuna lur horren baliospena 500.000 eurokoa dela da, hirigintzako abokatu eta Tasatzaileen Elkargoko tasatzaile ofizial batek egindakoa. Etxe batzuk sartzen diren lur zatia da, lur laua eta herrigunean bertan. Bere erantzuna izan zen orain 40.000 euro direla, gordagailuta dituela eta desjabetzea hasi dela. Hori da berarekin izan daitekeen elkarriketa.

Ez da lehenengo aldia bere gehiegikeriak jasaten ditudala. Beste batean hustubide bat egiteko 100 m²rengatik 1.800 euro eskaini zizkidan. Planoa bidali eta 3.000 euro eskatu nituen. Bere erantzuna izan zen beste plano bat 584 m²koa eta 594 euro desjabetzea-

ren aurretik. Azken hau egin zuen, baina ez dut oraindik jaso dirurik. Hau edozein baserriarrentzat iraina da. Gezurretan dabil batzuen interesak defendatzeagatik. Bizilagun bati baimena eman zion hustubiderik ez zuen etxebizitza batean bizitzeko. Horrek ur fekalen estolda bat sortu zuen baserri- tik 50 metro tara eta arratoiak ekarri zituen. Idatziak bidali nizkion, baina ez zuen kasurik egin. Ez naiz Adunan bakarra bere nagusikeria eta diktadura jasan behar izan dituen. Baserriaren ondoan etxebizitzak eraikitzen ari ziren batzuk ez zituzten Aldundiak jarritako arau berritzaileak errespetatu. Esan nion eta bere erantzuna arauekin erabat zetzotela izan zen. Arartekoarena joan nintzen, baina

topografoetan gastatu nuen. Ekologista dela dio AHTren aurkako esanekin eta behar ez den bide bat jarri nahi du eskolaren eta haur parkearen ondotik, ikuspenik gabeko kurba batekin. Adunan 330 herritar bizi dira, plaza oinezkoentzat da egin zuten saihesbidearengatik eta errepide batzuk daude. Bide hori egiteko tamaina handiko 20 zuhaitz autoktono bota behar dituzte. Hegazti mota asko daude eta haurrentzat oso pedagogikoa da. Gainera, bidea aurretik pasatzerakoan, herriaren fisionomia hausten du eta bakarrik goi aldean bizi direnek edo sagardotegira joaten direnek erabiliko dute. Batzuk abiadura handian pasatzen dira eta ez beharra ziurtzat jo daiteke. Alkateak berak zein Aldundiko ar-

kitetketo den Maite Zelaiak interesak dituzte. Orain 17 urtetik aurrera erantzunkizuna hartu beharko dute.

Esan nezake ere ijitoen etniako familia bat ez zuela errodan sartu, euskaldunak izan eta Arartekoak eta SOS Arrazakeriak hala eskatu arren, bi eta lau urteko bi haur eskolara joan ahal izateko. Eta Er-tzaintzaren bidez 2007/01/09an etxebizitza kendu zieten emakume bat bi haur kalean utzi. Hori delitua da eta ez ni mehatxuka aritu naizela. Ez nuen mehatxurik egin, nire interesak defendatu nituen. Alkatearen beste nagusikeria gehiago esplikatu nitzake, ez baitago bera bezain diktadoreagorik.

Leandro Galatas Bengoetxea.
Etxeberri baserria, Aduna.

Barriola eta Gonzalez partidaren bigarren zatian aise nagusitu ziren

Leitza » 12-9a arte parekatua izan zen partida, baina Ruizek eskua minduta zuen eta besteak 22ra zuzenean joan ziren

IMANOL GARCIA

Binakako Pilota Txapelketan leitzarren arteko norgehiagokan Barriola gailendu zen. Gonzalezekin batera Bengoetxea V.L.ari eta Ruizi 22-9 irabazi zieten. Bi pilotari leitzarrek iritzi berdina dute. Partidaren lehenengo zatia parekatua izan zen. 12-9ko markagailura iritsi ondoren, Barriola eta Gonzalez 22. tantoraino iritsi ziren zuzenean. Ruizek eskubia minduta izatea eragina izan zuen.

Barriolak azaldu duenez, «lehenengo zatia nahiko parekatua izan zen eta bigarrenengo zatian Ruizek bere maila ez zuen eman. Dirudien eskubian min hartu zuen eta Gonzalezek pilota hor aurrean izan zuen. Egia esan Gonzalez berak bigarren zati horretan erakustaldia egin zuen».

Emaitzarekin «oso gustura» dago Barriola. «Finalerdietan sartzeko hasieratik esaten genuen bikote bat seguru sartuko zela bost garaipen lortuz gero. Lau partida jokatu ditugu eta laurak irabazi eta horrek esan nahi du sailkapena eskuetan dugula eta falta diren lau partidatan gutxienez bat irabazi behar dela. Eta, noski, saiatuko gara garaipen hori aste honetan izan dadila».

Barriolak bere burua «ongi» ikusi zuen. «Hasieran bi pilota galdu nituen, normalean galtzen ez ditudanak, edo behintzat, oso zailak ez zirenak. Hortik aurrera ez nuen hutsik egin eta ongi aurkitu



Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea. HITZA

nintzen. Beti dakigu Txapelketan partidak oso gogorak izaten direla eta hasieratik dena ematera ateratzerik ez dagoela eta nik uste dut partida guztian maila berdina mantendu nuela, erregular aritu nintzela eta ni behintzat nire partidarekin gustura gelditu nintzen».

Hurrengo partida Kokaren eta Beginoren aurka izango dute Barriolak eta Gonzalezek. «Denak bezala gogorra izango da. Lehenengo partidatan 20-11 egon ginen galtzen eta azkenean 22-20 irabazi genuen, baina horrelakoak gutxi- gertatzen dira. Horregatik, eta lehen esan bezala, beste garaipen bat lortuz gero, sailkapena eskuetan dugu eta noski aste honetan irabaztera joan beharra dugu».

«Partida zaila»

Bengoetxeak hirugarren puntua ateratzeko aukera ikusten zuen, «baina partida zaila izan zen. Patxi Ruizi eskua mindu zitzaion hasiera xamarretik eta gero nik gauza handirik egiterik ez nuen izan, be-
raiek partida oso ondo jokatu zute-

lako. Beraiek aise irabazi zuten, gu baino askoz hobeto jokatu zuten eta merezita atera zutela partida».

Lehenengo zatian «nahiko ongi» eutsi ziotela iritzi dio Bengoetxeak. «Patxi ondo eutsi zion pilotari, eskua mindu arte, eta ni ere hobeto aritu nintzen. Bigarren zatian beraiek askoz hobeto aritu ziren. Gainera, diferentzia hartzearekin Gonzalez lasatu egin zen eta heldu zen guztia errematatu zuten». Iparraldeko pilotaria «joko askorekin» dagoela dio Bengoetxeak eta «oso zaila da bere kontra irabaztea eta jokatzeko. Gonzalez pilota aurrean hartzeko aukera izan zuen eta gero errematatu ere asko egin zuen. Beste pilotariekin konparatuz indar berezi bat ematen dio pilotari eta horrelako jokorekin dagoenean eta gutxi galtzen duenean, beti tanto asko egiten ditu eta momentu honetan oso arriskutsua da».

Bengoetxeak behatza hautsita zuen eta babes berezi batekin aritu zen. Beroketa ariketak egiterakoan «pixkat beldurrarekin» egon

zela azaldu du, kolpea nabaritzen zuelako. «Gero, egia esan, partida jokatzekoan ez nuen deus nabaritu. Beti ezberdina izaten da babes bereziarekin aritzea, baina ez nuen arazorik izan behatz horren- gatik. Uste baino hobeki sartu ahal izan nuen eta ahal nuen guztia egiten utzi zidan eskualak».

Hurrengo partida Capellan eta Pascualen aurka izango dute, Xala seguraski ez delako osatuko. Bengoetxeak seguruen Otxandorena- rekin jokatu du, Patxi Ruizek ez baitu jokatu. «Partida garrantzi- tsua izango da. Denak dira garrantzi- tsuak, baina igandekoa irabazi beharreko partida izan behar du hor aurrean jarraitu nahi badugu. Asegarceko lau bikoteak bi puntu- rekin gaude berdinduta eta partida horiek oso garrantziatsuak dira».

Falta diren beste lau partidetatik Bengoetxeak «garrantziatsua» de- ritzo gutxienez bi irabaztea, «eta hiru badira hobe. Besteek ere partidak irabaziko dituzte eta denent- zat garrantziatsua izango da ahalik eta partida gehienek irabaztea».

Laburrak

Ohiko osoko bilkura egingo du Udalak gaur 20:30ean

ALKIZA » Udalak ohiko osoko bilku- ra egin du gaur, 20:30ean. Beste- ak beste, 2007-2008 ikasturtera- ko kultura, musika, kirola eta eus- kararen inguruko jarduerak burutzeko diru laguntzak esleitzea izango dute gai zerrندان.

'Berriak Berri' aldizkariari buruzko bilera, gaur

ANOETA » Anoetako Udalen artean hiruzpalau aldiz argitaratzen duen *Berriak Berri* aldizkariari buruz biler- a bat antolatu nahi du herriko tal- deen eta herritar ororen iritziak eta ekarpenak jasotzeko, formatua zein edukia erabakitik. *Berriak Berri* «biziago» bat egiteko asmoa dute. Bilera gaur izango da, 20:00etan, udaletxean.

Zauritu bat trafiko istripu baten ondoren

VILLABONA » Ertzaintzaren agente- ek orotara hamasei pertsona atxi- lotu dituzte EAEn asteburu hone- tan zehar, trafikoaren segurtasu- naren kontrako delitua egotzita. Motordun ibilgailuak edari alko- holdunen eraginpean gidatzeaga- tik atzeman dituzte. Preso hartuta- ko lagunetatik zazpi istripuak izan dituzte eta hauetako batean, Villa- bonan gertatu dena, ibilgailu bate- ko bidaiariren bat zauritu da.

Jesusen Bihotza Ikastola Inauteririk prestatzen

VILLABONA-ZIZURKIL » Jesusen Bihotza Ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoak «jo eta ke» ari dira Villa- bonan Ostegun Gizeneko eta Zi- zurkilen Ostiral Meheko festak antolatzen. Aurtengoan, Villabonako Ikastolan irabaxo mozarrotuko dira eta Zizurkileko Ikastolan, berriz, ordulariz.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leizaola: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leizaola: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

■ **Leitza.** Inauteriak: 9:30etan Erasoite auzoko eskea; 11:30etan Txan Magoa; 14:30etan eskalarien bazkaria; 16:30etan ume eta gazte-txoek kalejira; 17:30etan txokolata; ondoren, buruhandiak eta musika eskolako fanfarrea; ondoren goxokiak; 18:30ean, garai batego atsaren kalejira; 19:00etan, Gau-bela taldea karrapen; 23:30ean, Gau-bela taldea karrapen; Ondoren Incasables txaranga. Goizeko 02:00etan karaokea eta atsaura lehiaketa Atakabeltza Gaztetxean.

Deialdiak

■ **Anoeta.** *Berriak Berri* hiruhilabete kariaren itxura eta edukia zehazteko bilera udaletxean 20:00etatik aurrera.

■ **Ibarra.** *Barne barnetik, Ibarra* izenburupean Ibarri buruzko DVDa jarri berri du salgai dago Benito Izagirre kultur etxean eta udaletxean 6 eurotan. Bertan, herriko ohitura, txoko, bizilagun, eraikin, auzo eta mendi ezberdinak ikus daitezke irudien bidez.

■ **Tolosa.** *Tolosa Munduan* ziklorako abonoak salgai daude Kutxanet-etn. Apirilean Noa, maiatzean Omar Faurk eta ekainean Alasdair Fraser-Nathalie Haas izango dira zikloan.

■ **Tolosa.** Inauterietako Danborradako azken entsegua Udal Musika Eskolan 20:00etan.

■ **Villabona.** Loatzo Tiro Elkarteak bazkideei jakinarazten zaie otsailaren 9an, 14:00etik aurrera, ospatuko den Ehiza Txiki Txapelketarako izen-ematea Eizmendi armategian egin behar dela. zen-abizenak euskal grafariaraldatu nahi dutenek udal bulegoetan egin dezake (Euskara Batzordea, 943 692495).

Erakusketak

■ **Tolosa.** Charo Berra Erroren *Zuhaitza: bizia eta kolorea* pintura erakusketara Aranburu Jauregian. Inaugurazioa, abenduaren 14ean 19:30ean. 17:30etik 20:30era, jaieguna eta astelehenetan izan ezik.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzukizunik.



Babarrunaren kofradiaren jai eguna

TOLOSA ■ Babarrunaren Kofradiak bere XIX. kapitulua ospatu zuen pasaden asteburuan. Udaletxeko pleno aretoan egin zuten ekitaldia, herriko kaleak zeharkatu ostean; bertan izan zen Tolosako alkate Jokin Bildarratz. Luis Goikoetxea, Sukia harategikoa eta Yune Iraola Carceller, sei hilabeteko neskatza kofradiako zenbakia banatu zieten. Merituaren aipamena banatu zieten Tolosako Buruhandi eta Erraldoi, Fresnoko Pipa-

rraren kofradiakoei eta Mujika sukaldekoiei. Halaber, ohorezko aipamena jaso zuten Tomas Hernandezek, Inauterietako kartel iragarleen egileak, Iñaki Corralek, Palmako El Botxo-ko jatetxeak, *Vaya Semanitako* Andoni Agirregomezkortak eta German Muruamendiarezek Euskal sukaldearen fundazioko zuzendariak —argazkian—. **KLISK**

A Agurrak



**Urte askoan!
Kaskoa kaskoan**

Jokin (Anoeta). Gaur 4 urte. Muxu handi bat etxekoan partetik.



**Urte askoan!
Eguzki (Gaur 7 urte).**

Zenbaki majikoa gainean duzu. Etxekoak.

agurrak urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

hitza ren eskutik

G PUNTUA
IPUZKOAKO BERTSOLARI
TXAPELKETA 2007

Finaleko DVDa

Finaleko bertsaldi hautatuak



Hitza ren harpidedunentzako eskaintza berezia **6 €**

Deitu: **902-82 02 01**



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**